



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

2022ko lehen hiruhilekoa




LABORAL
kutxa

AURKIBIDEA: EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren bilakaera	3
Euskal Kontsumitzailearen Konfiantzaren Osagarriak	7
Euskal Kontsumitzailearen erosketa-erabakiak.....	13
Eranskina – Aurkibideak	19
Eranskina – Metodologia	23
Fitxa Teknikoa	26

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN BILAKAERA


- 2022a, EAEko familien konfiantza hobetuta hasi da
 - Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza geldotu egin da
 - eta inguruko herrialdeetan ere ez da hobetu
- 

1 | 2022a, EAEko familien konfiantza hobetuta hasi da

Euskal familien konfiantza hobetuta hasi da 2022a (8, +8 puntu). Horrek esan nahi du pandemiarekin lotutako osasun-egoera konpontzen ari den pertzepzioa sendotzen ari dela, baita datu ekonomikoen eta enplegu-datuen sinesgarritasuna ere. 2021aren amaieran (ia) pandemiaren aurreko mailetan zeuden datu horiek.

Azken hiru urteetako ibilbidea erakusten du grafikoaren profilak: 2019 (pandemiaren aurretik), pandemiak eragindako biurtekoa (2020-2021) eta, argi eta garbi, pixkanaka egoera horretatik irtetzea, hiruhilekoz hiruhileko finkatzen ari den joera. 2022ko lehen hiruhilekoan, EAEko familien konfiantza 2019koa baino hobea da dagoeneko.

Errusia-Ukraina gerra hasi aurretikoak dira emaitza horiek. Gerra horrek murriztu egingo du familien konfiantza.




2 | Estatuko eta EB-27ko familien konfiantza geldotu egin da

EAEko familiek lau hiruhileko daramatzate neutraltasunaren eta (ia) baikortasunaren artean, eta 2022ko lehen hiruhilekoan erregistratu da emaitzarik onena (8). Estatuko (-11) eta EB-27ko (-10) familien profila, berriz, ezkorra da eta balio negatiboekin hasi dute 2022a.

Estatuko eta EB-27ko familiak azken lau hiruhileko hauetan eszeptiko eta aldaketarik gabe mantendu direla esan daiteke, eta emaitzen balioek apur bat negatiboak izaten jarraitzen dute. Badirudi 2021aren amaieran eta 2022ko lehen bi hilabeteetan sortutako egoera dela konfiantza berreskuratu ez izanaren arrazoa, seigarren olatuaren eta adierazle ekonomiko garrantzitsu batzuk (esaterako, inflazioa) okertu izanaren ondorioz.

Errusia-Ukraina gerra hasi aurretikoak dira emaitza horiek. Gerra horrek murriztu egingo du familien konfiantza.



1. I. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urtarrila-otsaila batez bestekoa.


3 | eta inguruko herrialdeetan ere ez da hobetu

Aintzat hartutako lau herrialdeetako familietan bilakaera bera izan du 2022ko lehen hiruhilekoan erregistratutako konfiantzak: kasu guztietan apur bat okertu da eta, salbuespenak salbuespen, indize hau ez da balio neutroetan sartu.

Frantziako (-8) eta Alemaniako (-5) familien konfiantza apur bat okertu da (-2 eta -1 puntu, hurrenez hurren). Nolabaiteko ezkortasuna dutela baieztatzen du horrek, azken lau hiruhilekoetan, orokorrean, aldaketa gutxi izan dituen. Aitzitik, Herbehereetan (-11) berriro ere behera egin du (-2 puntu) konfiantzak, eta beheranzko joera baieztatu da. Danimarkako familien konfiantzak ere behera egin du (2, -2 puntu), baina balio positiboak dituzte.

Errusia-Ukraina gerra hasi aurretikoak dira emaitza horiek. Gerra horrek murriztu egingo du familien konfiantza.

Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziako herrialdeak



1. I. hiruhilekoko datua behin behinekoa da EB-27 eta Espainiarentzako. Urtarrila-otsaila batez bestekoa.

EUSKAL KONTSUMITZAILEAREN KONFIANTZAREN OSAGARRIAK

- ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak asko hobetu dira
- enpleguaren bilakaeraren gaineko igurikimenak oso positiboak dira
- baina oraindik ere “apur bat ezkorrak” dira familiako ekonomiari dagokionez
- aurrezteko igurikimena, oso altu
- EAEko familien konfiantza hobetu egin zen, baina gerra hasi da...


4 | ekonomia orokorraren gaineko igurikimenak asko hobetu dira

EAEko familiek ekonomia orokorraren bilakaerarekiko dituzten igurikimenak positiboak dira berriz ere (3) eta asko hobetu dira (+11 puntu) 2021eko laugarren hiruhilekoarekin alderatuta.

Izan ere, ekonomia orokorrak datozen hamabi hilabeteetan izango duen bilakaeraren gaineko eszeptizismoa murriztu egin da: egoera ekonomiko orokorra apur bat edo askoz okerragoa izango dela uste duten pertsonen pisua murriztu egin da (% 31; ehuneko -10 puntu) eta hazi egin da egoerak berdin jarraituko duela (% 28; ehuneko +2 puntu) edo apur bat edo askoz hobea izango dela (% 41; ehuneko +8 puntu) uste dutenen ehunekoa.

Igurikimen hauek bat datoz EAEko ekonomiak 2021ean erregistratutako hazkundearekin (Eustat, Hiruhileroko Kontu Ekonomikoak); ekonomiaren hazkundera % 5,6koa izan da, eta enplegua % 5,5 hobetu da. Hasiera batean aurreikusitakoak baino apur bat baxuagoak izan arren, bi zifra horiek oso positiboak dira eta pandemiaren aurreko mailan kokatu dira ia bi adierazleak.

Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak. EAE




5 | enpleguaren bilakaeraren gaineko igurikimenak oso positiboak dira

EAEko familiek langabeziaren bilakaeraren gainean dituzten igurikimenak benetan positiboak dira (19) eta hobekuntza finkatu egin da: lau hiruhilekotan egin dute gora igurikimenean, eta bereziki garrantzitsua da 2022ko lehen hiruhilekoan erregistratutako hobekuntza (+9 puntu).

Hamar pertsonatik ia seik uste dute datozen hamabi hilabeteetan behera egingo duela langabeziak (% 56), hamarretik bik baino apur batek gehiagok mantendu egingo dela uste dute (% 26) eta hamarretik ia bik hazi egingo dela (% 18). Horren emaitza da langabeziaren bilakaeraren gaineko igurikimenean indizearen balio positiboa. Funtsean, 2022aren hasieran, langabeziak behera egingo duen ustea gailentzen da EAEko familietan.

Igurikimen horiek bat datoz EAEn erregistratutako afiliazioarekin (Gizarte Segurantza) eta langabeziarekin: 2022ko urtarrila-otsaileko batez besteko datuak (974.830 eta 115.880 pertsona) pandemiaren aurrekoak baino nabarmen hobeak dira (971.562 eta 117.444 pertsona, 2020ko urtarrila-otsailean).




6 | baina oraindik ere “apur bat ezkorrak” dira familiako ekonomiari dagokionez

Familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko pertzepzioa izaten da gorabehera gutxien izaten duen kontsumitzaileen konfiantzaren indize partziala (okertzeko edo hobetzeko tarte txikiena duena) eta, orokorrean, ezkorragoa izaten da (probabilitate gutxiago daude baikorra izateko).

Pandemiaren biurteko honetan (2020-2021) izandako ibilbideak baieztatu egiten du esaldi hau: gutxien okertu zen indizea da, baina baita gutxien hobetu dena ere. Eta ekonomia orokorraren eta enpleguaren gaineko igurikimenak baikorrak izan arren, EAEko familiek pertzepzio “ezkorra” izaten jarraitzen dute familiako ekonomiari dagokionez (-6).

Hala, 2022ko lehen hiruhileko honetan, EAEko familiek haien familiako ekonomiaren bilakaeraren gainean duten konfiantzak apur bat ezkorra izaten jarraitzen badu ere, egia da zertxobait hobetu dela (+3 puntu). Hain zuzen ere, indize hau oraindik ez da iritsi pandemiaren aurreko mailara (+1 edo -1, hurrenez hurren, 2019ko eta 2020ko lehen hiruhilekoan).




7 | aurrezteko igurikimena, oso altu

Euskal kontsumitzaileek aurrezteko gaitasunaren gainean dituzten igurikimenen bilakaerak erakusten duenez, zuhurtzia faktore erabakigarria da: ekonomia orokorraren eta enpleguaren gaineko igurikimenak positiboak izanik, familiako ekonomiaren bilakaeraren gaineko konfiantza-falta izango litzateke kontsumoa atzeratzeko eta badaezpada aurrezteko akuilua.

2022ko lehen hiruhilekoan, EAEko familiak datozen hamabi hilabeteetan aurreztuko dutenaren gainean dituzten igurikimenak oso baikorrak dira (15) eta hobetu egin dira aurreko hiruhilekotik (+7 puntu). Hala, azken lau hilabeteetan balioak positiboak izan dira eta, argi eta garbi, pandemiaren aurrekoak baino hobeak dira.

Sektore pribatuak (familiak eta enpresak) EAEko finantza-erakundeetan (Espainiako Bankua) dituzten gordailuen saldoak aurrezpen-joera hori islatzen dute: 2021eko hirugarren hiruhilekoan (azken datua) urte arteko % 3,3 hazi zen, eta balio historiko altuenetariakoak erregistratu zituen.

Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak. EAE



8 EAEko familien konfiantza hobetu egin zen, baina gerra hasi da...

2022ko lehen hiruhilekoan asko hazi da EAEko familien konfiantza (8; +8 puntu). Hala, ondoz ondoko lau hiruhilekotan hobetu da konfiantza, eta nolabaiteko baikortasuna finkatu da.

Atxikitako taulan ikus daitekeen moduan, konfiantza hori osatzen duten lau indize partzialek hobera egin dutelako hobetu da konfiantza, eta, funtsean, igurikimenak onak direlako ekonomia orokorraren (3), enpleguaren (19) eta aurrezteko gaitasunaren (15) gainean. Horrek, soberan konpentsatzen du familiako ekonomiaren gaineko eszeptizismoa (-6).

Baina kontsulta hau, justu, Errusia-Ukraina gatazka belikoa hasi aurretik egin zen. Hori ezegonkortasun-faktore bat da eta inpaktu handia du. Lehen ondorio gisa, dagoeneko, Eurogunearen eta Estatuaren hazkunde ekonomikoaren gaineko igurikimenak murrizten ari dira. Nazioarteak gatazka hau ahalik eta denbora laburrenean geldiarazi eta konpontzeko erakusten duen gaitasuna erabakigarria izango da 2022aren hasieran sendotzen ari zela zirudien hobekuntza-joera hori berreskuratzeko.

Familien konfiantza-indizea eta bere osagarriak. EAE

Indizea...	2019	2020	2021	IIH-21	IIIH-21	IVH-21	IH-22	Aldea
Familien konfiantza	-2	-22	-6	2	5	0	8	+8
Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	2	6	-8	3	+12
Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-2	-4	-9	-6	+3
Langabeziaren bilakaera	-4	-41	-8	2	11	10	19	+9
Aurrezteko gaitasuna	2	-2	3	4	5	8	15	+7

⇔ (±2 puntuko aldea)



EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

- inflazio-igurikimenak moteldu egin dira
- erosteko unearen inguruko balorazioak okertzen jarraitzen du
- “erosketa handiekin” lotutako igurikimenak maila apalean mantentzen dira
- etxebizitza edo autoa erosteko asmoaren hobekuntza apala finkatu egin da
- ziurgabetasunak baldintzatu egingo ditu kontsumoa eta inbertsioa




9 | inflazio-igurikimenak moteldu egin dira

2021eko bigarren eta laugarren hiruhilekoen artean, EAeko kontsumitzaileek prezioen bilakaeraren gainean zituzten igurikimenen indizea asko okertu zen (-32, -41 eta -64). 2022ko lehen hiruhilekoan moteldu egin da joera hori, eta ez da hain ezkorra (-34).

Izan ere, prezioak azkarrago haziko direla uste duten pertsonen kopurua hamarretik zazpikoa izatetik, hamarretik bostekoa izatera pasatu da (% 55, ehuneko -19 puntu). Hamarretik bi pertsonak baino apur batek gehiagok pentsatzen dute orain arte bezala haziko direla (% 25, ehuneko +9 puntu) eta bikoiztu egin da polikiago haziko direla uste dutenen taldea (% 20, ehuneko +10 puntu).

Urtarrileko datuek erakusten dutenez, KPI orokorrak % 6,1 eta % 6,0ko urte arteko igoera izan du Estatuan eta EAEn; elikagairik eta produktu energetikorik gabeko KPIa, berriz, % 2,7 eta % 2,9 igo da. Faktura energetikoaren hazkundera handia izan dela erakusten du horrek, baina, ziurrenik, prezioen igoera jasangarriagoa izan da gainerako ondasunen eta zerbitzuen kasuan.

Zure ustez, nola haziko dira prezioak hurrengo 12 hiletan?¹ (pertsonen %a)



¹ Azken 12 hilabetei dagokienez.


10 | erosteko unearen inguruko balorazioak okertzen jarraitzen du

Oro har, zer iruditzen zaizu oraingo unea etxerako gaiak (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...) erosteko?

EAEko familien konfiantza maila orokorra hobetu den arren, familiako ekonomiaren gaineko igurikimenak ezkorra izaten jarraitzen du. Gainera, prezioek gora egiten jarraitzen duten pertzepzioa dute familiek. Horrek guztiak azalduko luke etxerako erosketak (handiak) egiteko unearen balorazio-indizea etengabe okertzen joatea.

2022ko lehen hiruhilekoan, erosteko unearen balorazioa are ezkorragoa izan da (-24; -3 puntu) eta 2020an zehar erregistratutako balioen antzekoak eskuratu ditu: EAEko familia gehienek ustez, unea ez da ona (% 37; ehuneko -1 puntu) edo, batez ere, ez zaie axola (% 50; ehuneko +5 puntu) kontsumo handiarekin lotutako erabakiak hartzeko.

Erosteko unearen balioztapena¹
(pertsonek %a)



¹ Azken 12 hilabeteetarako dagokienez

11 “erosketa handiekin” lotutako igurikimenak maila apalean mantentzen dira


Zure ustez, nolakoak izango dira etxeko erosketak edo gastuak (hala nola altzariak, etxetresna elektrikoak, etxebizitzako konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan¹?

EAEko familiek erosketa handiak egiteko dituzten igurikimenen indizeak negatiboa izaten jarraitzen du (-6; -2 puntu) eta urrundu egin da 2021eko bigarren eta hirugarren hiruhilekoetan eskuratutako balio positiboetatik (+1 eta +2). Dena den, urrun dago 2020ko batez besteko baliotik (-12).

Hain zuzen ere, familien erdiek (% 53; ehuneko +2 puntu) uste dute haien hurrengo erosketak une honetan dituztenen berdinak izango direla, baina murriztu egin da erosketak apur bat edo asko areagotuko dituztenen multzoa (% 21; ehuneko -3 puntu) eta hazi egin da apur bat edo asko murriztuko dituztenen taldea (% 26; ehuneko +1 puntu).

Indize honen emaitzek ez dute aurreikusten kontsumoa modu esanguratsuan haziko denik.


Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan¹
(pertsonek %a)




¹ Azken 12 hilabeteekin alderatuz.

12 etxebizitza edo autoa erosteko asmoaren hobekuntza apala finkatu egin da

EAEko familien % 2,1ek adierazi dute etxebizitza erosiko dutela; proportzio hori hobetzen ari da -oso pixkanaka-. Dena den, metatutako aurrezkia, inbertsio gisa duen erakargarratasuna edo atzeratutako erabakiak izango lirateke eragiketa horiek bultzatzen ari direnak. 2021ean urte arteko % 15,8ko hazkundera izan du¹, eta pandemiaren aurreko mailan kokatu da (2021ean 20.701 eta 2019an 20.705).



Ibilgailu bat erosiko duten familien ehunekoak hobera egin du apur bat lau hiruhilekotan jarraian (% 9,7), ibilgailua erosteko erabakia ahultzen duten faktoreek hor jarraitzen duten arren (motorizazioa-fiskalitatea, “entregaren atzerapen posibleak”...). Hala, 2022ko urtarrilean eta otsailean² ez da leheneratu³ ibilgailu berrien matrikulazioa (-% 3,1 eta -% 39,6, 2021eko eta 2020ko urtarrila-otsailarekin alderatuta).



¹ EIN, Jabetza-eskubideen transmisioen estatistika (etxebizitzaren salmenta).

² Bilakaera positiboa izan da otsailean (joera-aldaketa islatuko luke), kanal partikularren eta ibilgailu elektrikoei esker.

³ Estatuko ibilgailu-parkearen zahartzea dela-eta, eskaria geldotuta dago, 13 urtetik gorakoa baita antzintasuna (batez bestekoa).

13 | ziurgabetasunak baldintzatu egingo ditu kontsumoa eta inbertsioa

2022ko lehen hiruhilekoan, prezioek gora egiten jarraituko dutela aurreikusten dute EAEko kontsumitzaileek. Ondorioz, zuhurrak izango dira eta badaezpada aurreztu egingo dute, estrategia gisa, familiaren errentek okerrera egingo dutelakoan. Hala, EAEko familiek...

- Kezka agertu dute prezioen igoeraren aurrean: 2022ko lehen bi hilabeteetan baieztatu denez, produktu energetikoez harago doa erregistratutako igoera.
- Erosteke ahalmena galduko dutela aurreikusten dute: erosteke unearen balorazioa (-24) apur bat negatiboagoa da 2021aren itxieran baino (-21) eta erosketa handiak egiteko igurikimena (-6) okertzen ari da, eta balio positiboetatik urruntzen.
- Agertoki horrek bestelako eragina du inbertsio-ondasunen gainean: etxebizitza edo ibilgailua erosteke asmoa hobetzen ari da poliki-poliki, baina asmo hori gauzatzeko garaian emaitza ezberdina da. EAEn, etxebizitzaren salerosketa antzekoa izan zen 2021ean (20.701) eta 2019an (20.705), baina ez zen gauza bera gertatu ibilgailu berrien matrikulazioekin (24.716, 2021ean), hondoratuta jarraitzen baitu (-% 38, 2016 eta 2019 artean matrikulatutako batezbestekoarekin alderatuta, 39.879 unitate).

Azkenik, Errusia-Ukraina gatazka belikoak eragin ugari izango ditu eta, ondorio ekonomiko-finantzario zuzenez gain, EAEko kontsumitzaileen igurikimenak okertuko ditu 2022an zehar.

Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk

	2019	2020	2021	II H-21	III H-21	IV H-21	I H-22	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	-20	-22	-41	-32	-41	-64	-34	30	▲
Erosteke unearen balorazioa	-5	-13	-12	2	-16	-21	-24	-3	▼
Erosketak egiteko igurikimenak	0	-12	-2	1	2	-4	-6	-2	▶


↔ (±2 puntuko aldea)

ERANSKINA – INDIZEAK

laburpena: familien konfiantza indizea

euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

beste adierazle batzuk



I | laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2019	2020	2021	II H-21	III H-21	IV H-21	I H-22	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	2	5	0	8	▲
• Estatua*	-6	-23	-13	-11	-9	-11	-11	▶
• EB*	-6	-15	-9	-7	-6	-8	-10	▶
○ Frantzia*	-9	-13	-7	-6	-5	-6	-8	▶
○ Alemania*	-2	-10	-5	-4	-2	-4	-5	▶
○ Danimarka*	--	--	6	7	8	4	2	▶
○ Herbehereak*	--	--	-3	3	0	-9	-11	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE								
• Ekonomia orokorra	-6	-33	-12	2	6	-8	3	▲
• Etxeko ekonomia	-2	-12	-8	-2	-4	-9	-6	▲
• Langabezia	-4	-41	-8	2	11	10	19	▲
• Aurrezkia	2	-2	3	4	5	8	15	▲
Beste indize batzuk. EAE								
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	-20	-22	-41	-32	-41	-64	-34	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-5	-13	-12	2	-16	-21	-24	▼
• Erosketak egiteko igurikimena	0	-12	-2	1	2	-4	-6	▶
Erosketa handiak. EAE.**								
• Etxebizitza	2,1	0,9	1,5	1,7	1,1	1,9	2,1	▶
• Autoa	6,4	5,3	6,3	5,3	6,4	8,4	9,7	▶

⇒ (± 2 puntuko aldea)

* I. hiruhileko datuak urtarilla-otsaila batez bestekoari dagozkio.

** Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

II | euskal familien konfiantza indizea, ezaugarrien arabera

	2019	2020	2021	II H-21	III H-21	IV H-21	I H-22	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea								
• EAE	-2	-22	-6	2	5	0	8	▲
Adin-mailak								
• 25 eta 39 urte bitartean	4	-17	-4	-3	10	5	10	▲
• 40 eta 54 urte bitartean	-2	-22	-7	7	4	-1	5	▲
• 55 eta 64 urte bitartean	-6	-25	-6	-2	8	-1	9	▲
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-26	-8	2	-3	-2	8	▲
Lan egoera								
• Landuna (soldatapekoa/ norbere kontura)	1	-19	-4	5	9	2	9	▲
• Langabea	-8	-31	-16	-11	-2	-9	-5	▲
• Ez-aktiboa (erretiratua, etxeko langilea, ikaslea...)	-6	-25	-7	2	0	-1	9	▲
Familia-unitatearen hileko errenta								
• 1.700 €-rainokoa	-13	-32	-19	-12	-10	-14	-1	▲
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	0	-19	-6	0	9	-2	5	▲
• 2.800 €-tik gorakoa	4	-14	6	13	17	13	19	▲

⇒ (±2 puntuko aldea)

III | beste adierazle batzuk

	I H – 21	II H – 21	III H – 21	IV H – 21	I H – 22 _p	(azkena)
BPG	-2,9	18,6	3,9	4,7	--	IV hir.
Familien kontsumoa	-3,7	22,6	2,1	3,0	--	IV hir.
Afiliazioa	-0,7	1,0	-0,4	1,9	-0,2	urtarrila-otsaila
Erregistratutako langabezia	-2,6	-4,6	-3,0	-2,7	-1,0	urtarrila-otsaila
Txikizkako merkataritzaren salmenta-indizea	0,9	0,3	1,1	3,6	--	IV hir.
Etxebizitzen salerosketa	20,3	1,8	0,5	-13,2	--	IV hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-35,1	22,8	-12,8	3,5	-25,2	urtarrila-otsaila

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Anfac. Hiruhilekoen arteko tasa.

Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo bikoia) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

ERANSKINA– METODOLOGIA

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

zer esanahi du indizearen bilakaerak?




I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea¹ kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



¹ *Consumer Confidence Indicator*, dokumentu honetan familien konfiantzaren indize bezala aipatzen dena, kontsumitzaileen iritzia jasotzeko.

II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea pertsonen iritziarekin osatzen da. Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobegorainoko bitartean) sailkatzen da.

Osagaiak: konfiantza-indizea

Hauen indize partzialak:

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

Baikortasuna



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasuna



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

Fitxa teknikoa eta metodologia

Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie
- Otsailaren 7tik 18ra (2022ko I. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

Metodologia

Kontsumitzailearen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm